

IRAGANAZ OMEN GAUDE EGINAK...

Eider Zubelzu

Hernani, 16 urte

Bizitza, etenaldirik ez duen
Hondar-erlojua;
Askotan ez dakigun arren
Zein den hondarraren ama:
Desertua ala itsasoa;
Askotan ez dakigun arren
Noren arragoan eman zion suak kristalari
Bular inbertituen forma.

Bizitza, alaitasunez eta tristuraz
Osatutako itsasoa;
Sarritan ezin asmaturik gabiltzan arren
Zerk eragiten dien uhinei
-eguzkiak ala ilargiak.
Eta zerk bultzatzen dituen
Minaren labarrak erasotzera,
Heriotzaren hondartzetan hiltzera.

Zergatik ikusten dugu heriotza itsusi,
Zergatik jaiotza lore baten irri?
Zergatik bereizten ditugu jaio berriak
Arrosa eta urdin,
Neska oskorria bailitzan,
Mutila zero oskarbi?
Zergatik janzten dugu heriotza
Kandelaren horiz,
Jaiotza, berriz, txakolinaren aparrez?

Iraganaz omen gaude eginak
Eta baita etorkizunaz ere.
Orduan zergatik dugu atsegin
Gure gustuko kolorez margotzea,
Zergatik geroa programatzea
Soilik plazerrezko ordenagailuez?

Iraganaz omen gaude eginak
Eta sarritan ahanzten zaigu
Zein den gure hondar-erlojua
Martxan jarri zeneko ordua;
Etorkizunera omen goaz
Eta saiatzen gara
Gure margolari-paletako koloreetatik
Heriotzarena kentzen,
Atea inoiz itxiko ez balitz bezala,
Gure ilunabarra hodeirik gabea bailitzan,
Gure zerua odolaren burdinik gabea,
Bakar-bakarrik urre eta lore.